



## **URRETXINDORRA proiektua**

### **Familiantzako informazioa**

#### ***Zer da Urretxindorra Proiektua***

Mentoretza-proiektua da eta, bertan, goi mailako ikasle unibertsitarioek (mentoreek) Gipuzkoako ikastetxeren bateko 10 eta 14 urte bitarteko etorkin jatorriko umeak (mentoretza-hartzaileak) lagunduko dituzte ikasturtean zehar. Ikasteko aukera paregabea da, bai unibertsitako ikasleentzat, bai umeentzat, esperientzia berriak bizitzekoa, gaitasunak eta pertsonen arteko harreman modu berriak garatzekoa. Mentoreek nahiz umeek eta haien senideek proiektuan borondatez hartuko dute parte.

#### ***Nork har dezake parte***

2018/2019 ikasturtean 10 eta 14 urte bitarteko umeak ikastetxe honetan dituzten familiek.

#### ***Nor da mentorea edo ikasle unibertsitarioa***

Mentoreek Euskal Herriko Unibertsitate Publikoan edo Deustuko Unibertsitatean ikasten dute. Guztiek hautaketa-prozesu batetik pasa ondoren, formazioa jasotzen dute. Gainera, Gipuzkoako Sos Arrazakeriako lan-taldeak aldizka gainbegiratzen du haien lana.

Mentore bakoitzak adin txikiko bana izango du bere gain.

#### ***Zer egiten du mentoreak eta nire semeak/alabak?***

Eskolaz kanpo elkartuko dira eta dibertsioa, aisia eta denbora-tarte librea konpartituko dituzte. Elkarrekin adostuko dute zer egin: kirol-jarduerak, jarduera irekiak, jarduera kulturalak, liburutegira bisita, unibertsitatara, museoetara, eta abar. Ez da eskola errefortzurik egin nahi.

Proiektuan gauzatzen dituzten jarduerak dohakoak dira familiantzat. Mentoreek sarrerak edo beste motako gastuak ordaintzeko adina diru izango baitute.

Astean behin elkartuko dira, 3 orduz.



## *Zertarako da proiektua*

Zuen seme-alabek erreferentziazko pertsona gazte, motibatu eta konfiantzazko bat laguntzat izateko, haien garapenean eta hazkuntza pertsonal eta sozialean laguntzeko, gaitasun berriak eskuratzeko eta beste batzuk indartzeko, hizkuntzen jakite-maila hobetzeko, esperientzia berriak edukitzeko eta hiriko gune berriak ezagutzeko, finean, haien gizarteratzean laguntzeko.

Izan ere, proiektuan parte hartzen duten umeen **autoestimua** hobetzen dela frogatu da, eta honek haien ongizate pertsonal eta sozialean positiboki eragiten du.

## *Zer egin behar dut nik*

Zuen semeak edo alabak proiektuan parte hartzea onartzen baduzue, gurasoek mentoretza-prozesuan lagundu behar duzue, honakoetarako konpromisoa hartuz:

- **Arazorik** balego edo edozein **zalantza** argitzeko mentorearekin, ikastetxearekin edo SOS Arrazakeriako lan-taldearekin komunikatzea.
- Ikasturtean zehar mentoreak semearekin edo alabarekin egin beharreko asteroko hitzorduak erraztea.
- Semeak edo alabak mentorearekin duen komunikazioa erraztea eta arintzea.

## *Proiektuaren iraupena*

2018ko urritik 2019ko ekaina arte.

Proiektuaren hasieran eta amaieran (ostiral batean ziuurrenik) jaialdi bana egingo dira. Hasierako festan mentorea ezagutuko dute eta haien seme edo alabaren mentorearekin elkarrizketatuko dira. Proiektuan parte hartzen duten beste ikastetxeetako umeak ere ezagutuko dituzte, baita programa hau babesten duten erakundeetako arduradunak eta SOS Arrazakeriako lan-taldea ere, jarduera koordinatzen baitugu. Amaierako jaialdian ordura arte ereindakoa jasoko dugu eta proiektuko protagonistek, hau da, gazteek emandako aurrerapausuak bertatik bertara ikusiko ditugu.

## *Kontaktua*

### **SOS Racismo Gipuzkoa**

Alaia Garmendia

Loira Manzani

Karlos Ordoñez

[www.mugak.eu](http://www.mugak.eu)

[urretxindorra@sosracismo.eu](mailto:urretxindorra@sosracismo.eu)

943 321811